



Elkarlan gunea ren aurkezpena



Zer da Alberga?


Alberga ekonomia sozial eraldatzailearen sustapenerako elkarte da. Ekintzailetza kooperatiboa bultzatu, saretu eta herrian proiektu berriak artikulatzeko helburuarekin sortua.




Helburuak




- Zumaiako eta zumaiarren **beharrak** identifikatu, eta horiek asetzeko tresnak pentsatu eta garatzen hastea
- Ekonomia sozial eraldatzailean oinarritzen diren **proiektuak** sustatzea
- Proiektu sozial horien **aterpe** izango diren espazio fisikoak sortzea
- **Lanaren burujabetza** ahalbideratuko duten bideak jorratzea
- Ekintzaileen eta proiektu soizalen arteko **saretzea** sustatzea
- Administrazio publikoan eta gobernantza ereduan ekonomia sozial eraldatzailearen **ikuspegia** txertatzea



Zer egingo dugu?




**ESPAZIOAK
SORTU**
Elkarlan gunea




HITZALDIAK
Zaintza, elikadura,
energia



FORMAZIOA
Ekintzaile eta
eragileei



**INTER-
KOOOPERAZIOA**
Eskualde mailan






Elkarlan gunea



Komunitatearen elkarlana ardatz eta pertsonen ongizatea helburu, **proiektu sozioekonomikoak** garatzeko baliabideak eskainiko ditugu, Zumaiako ekintzaile eta eragileen artean sarea osatuz, eta ideia, zerbitzu eta ezagutzen trukea sustatuz.

Nondik gatoz?



Zer lortu nahi dugu?



- Ekonomia sozialean oinarritutako proiektuak abian jartzeko **espazioa eskaini**
- **Ekintzailetza komunitarioa**ri bide eman eta **herrian sustraituko diren ekimenak** martxan jarri
- Eragileen arteko **sareak** indartu
- **Ikuspegi publiko komunitarioa eta herri izaera** landu
- Ekimen kolektiboak martxan jartzeko eta eragiletza aktibatzeke klabe eta elementuen gainean **gogoeta** sustatu



Nori dago zuzenduta?



Ekintzaileak, freelanceak, autonomoak, GKEak, elkarteak, ikasleak, eratutako enpresak, eta abar.

Oro har enpresa-ideiaren bat edo gizarte-ideiaren bat duten eta proiektu baten bidez gauzatu nahi duten pertsona fisiko guztiak, eta halaber, proiektu estrategiko sortu berri bat abian jarri nahi duten enpresa guztiak.



Ordutegia eta harrera zerbitzua



ELKARLAN GUNEAREN ORDUTEGIA:

> Astelehenetik ostiralera: 09:00-20:00

HERRITARRENTZAT HARRERA ZERBITZUA:

> Asteazkenetan, arratsaldez: 16:00-20:00

> Ostiraletan, goizez: 10:00-14:00



Funtzionamendua



Espazioak bere mugak dituenek, erabiltzaile kopurua mahai kopurua baino handiagoa bada, lan lekuak elkarbanatu egin beharko dira.



Denboraren bankua



**Elkarlaneko onuradunek zerbitzuak eskaini
eta jasoko dituzte denboraren bankuaren
bitartez.**

Eskaini beharko dituzten zerbitzuak eremu horien kudeaketarekin eta **itzulketa soziala**rekin loturik egongo dira (jarduerak, tailerrak, ikastaroak, ekitaldiak, proiektuak eta abar).

* info@alberga.eus



**2023/
2024**



zaintza



energia



elikadura



alberga